

# **ZULOAN**

Bidaia bat AHT  
eta lan-esplotazioan  
barrena

Urko Apaolaza Avila

**EGILEA**

URKO APAOLAZA AVILA

**ARGAZKIAK**

ARGIA, ELA SINDIKATUA

**ARGITARATZAILEAK**

KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.

MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

**INPRIMAKETA-MAKETAZIOA**

ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Lege Gordailua: SS-1304-2017

ISBN: 978-84-697-7783-1



LIBURU HONEN EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,  
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

## aurkibidea

Jakingo bahu... ..	7
Esklabotza ezikusia.....	9
Karpeta arrosa.....	19
Kontratisten inperioa.....	39
Terrarioan .....	63
Tabakalera konexioa.....	83
Prakak urratuta.....	107
Eraikuntzaren hondoramena.....	113
Gurutzea.....	131
Testigantza grafikoa.....	145



## JAKINGO BAHU...

Zuri ere gertatuko zitzaizun. Bidegabekeria baten lekuko zara, berdin du zuk pairatu duzun, zure lagun edo lankide batek, ezezaguna bada onartezina iruditzen zaizun hori sufritzen duena. Gauza da zuk ikusi duzula, zuk bizi duzula, nolabait esateko, errealitate horren parte bihurtu zarela, nahigabe bada ere, eta pentsatzen duzu: jendeak jakingo balu hau gertatzen ari dela...

Saiatuko zara kontatzen honi, hari... idatziko duzu zerbait sare sozialetan, egunkarietan... argazki deigarrienak, zirrargarrienak, are morbosenak bila ditzakezu jendea zur eta lur gera dadin. Baina, ez. Ez da berdina bidegabekeria bati buruz irakurri edo albisteren bat ikustea, eta bidegabekeria zuzenean bizitzea. Jakingo bazenu nola gainditu arrakala hori...

Baina, gauzak zer diren, kontrakoa ere gertatzen zaitugu. Bidegabekeria bat, eta beste bat, eta beste bat zuzenean ezagutzen ditugun heinean, normaltzat hartzen ditugu, eta jendeak hori guztia ezagutzen duela sinestera iristen gara. Are, egunerokoan egin eta bizitzen duguna ez dugu behar adina baloratzen, gutxiestera ere iritsi ohi gara, nahiz eta kanpoko norbaitentzat altxor handi bat izan daitekeen. "Zertarako kontatu hau? Zeini interesatuko zaio?...". Jakingo bagenu zein erratuak gauden...

Bada, hau guztia, eta gehiago, biltzen da esku artean duzun liburu honetan. Eraikuntzaren mundu bidegabe ikusezina, AHTn gauzatua, behin eta berriz salatua, behin eta berriz zulotik argitara ateratzen saiatua, azkenean, etsituaren etsituaz, karpeta arrosa batean amaitua, ez balitz izan kazetari batek esan zigula: informazio honekin guztiarekin, idatzi ezazue liburua! Nik, baina, ezin. Jakingo banu nork...

Halaxe iritsi ginen Argiara, halaxe Urko Apaolazarengana. Halaxe Urkoren bizipenak, halaxe testigantzak, asaldurak, barruak hustu beharrak. Halaxe langileentzat emaitzak, eta baita zigorrak ere. Halaxe bizipen eta testigantzek blaitutako orrialde ederrak. Eta guk, lana proposatu genienean, pentsatu: jakingo balute non sartu diren Argiakoak...

Hitzaurrea bada irakurtzen ari zaren, zareten, liburua-  
ren lehen atala, nik badut informazio bat zuek ez duzue-  
na. Jakingo bazenute nola harrapatuko zaituzten Urko-  
ren lanak...

**Unai Oñederra,**  
*Manu Robles-Arangiz Fundazioko zuzendaria*